

SUMMERHILL HAURREN HEZKUNTZARI BURUZKO IKUSPUNTU ERRADIKAL BAT

A.S. Neill
Santi Angulo Martin (itzultzailea)
UEU, 398 or.
Bilbo, 2024

SUMMERHILL-en askatasun aire freskoa, orain euskaraz opari

Duela hamar bat urte ezagutu nuen nik zuzenean *Summerhill* eskola, munduan existitzen den eskola librerik enblematikoena. Bere berri banuen, jakina, eta horregatik nuen, hain zuzen ere, halako zirrara eragina zidan ikastoki horretara joateko gogoia eta desioa. Ez nuen barnetik bisitatu ahal izan, ate irekien egunetan baino ez baitago horretarako aukerarik, baina zortea izan nuela uste dut hala ere, jada eskola-eguna ez zen eta —beraz— umerik ez zegoen egun batean iritsi ginelako bertara, eta kanpoaldea, patioak, eta eraikinak hurbiletik sentitu ahal izan nituen behintzat, haurrak egotekotan ezinezkoa izango zitzaigukeena, pertsona horienganako errespetuagatik ulergarria denez.



1. irudia. *SUMMERHILL. Haurren hezkuntzari buruzko ikuspuntu erradikal bat* argitalpenaren azala.

Bidaia hori lerro hauetara ekartzearen helburua ez da hor ikusitakoa kontatzea, baizik eta nigan Summerhillek iradokitakoa handia izan dela erakustea, bisita egin nahi izatea ere eragiterainokoa. Ez zen hainbeste eskolaren egungo funtzionamendua ezagutzea horra eraman ninduen, baizik eta betidanik hainbeste inspiratu nauen leku hori zuzenean ikustearena.

Nik gaztetan izan nuen Summerhill eta bere sortzaile izan zen A. Neillen berri, W. Reich psikoanalistak sortutako prebentzio-ereduari buruzko formazioa jasotzen ari nintzela, Espainian. Erabat hartu ninduen askatasuna ardatz zuen eredu horrek guztiak, eta heziketari begira, zenbaterainoko zeukan oinarrian haurrenganako konfiantza, edo gauza bera dena, nola eta zenbat zerion jendarte berri eta osasuntsuago baten esperantza, etorkizunerako asmo onak sortu eta pizteko aukera ematen zuena.

Duela mende luzea sortu zuen Neillek Summerhill eskola Ingalaterran, eta hor dirau, gobernu ezberdinek jarri dizkioten arazoen gainetik, zutik eta tinko, garai ezberdinei moldatuz eta egokituz, baina bere printzipio nagusiei leial, beti leial. Neill oso apurtzailea zela esatera nindoan, baina uste dut ez dela hainbeste hori, baizik eta berak egin zuen eskolaren ereduak haustura handia eragin zuela, garaiko pedagogia zorrotz, zurrun eta autoritarioaren testuinguruan, batez ere. Pedagogia tradizionalarekiko haustura amestu ez ezik, gauzatu ere egin zitekeela erakutsi zuen, praktikan erakutsi ere.

Erabateko askatasunaren printzipiopean funtzionatuko zuen eskola sortu zuen, haurren eta gaztetxoenganako konfiantza osoaren oinarrian. Eta askatasunak benetan funtziona dezakeenik zalantza egiten duten horientzat, askatasunaren balio gorenaren froga da, oraindik ere, Summerhill. Ez dakit ohartzen garen, baina uste duguna baino larriagoa da askatasunaren onurak defendatu behar izatea bera, bizitza gidatzen duen printzipio nagusi horretatik zenbateraino urrundu garen seinale, zer pena.

Summerhill eskola oso berezia da. Arauak eta elkarbizitza denen artean erabakitzen dituzte, eskolaren bizitzarako organo gorena den eskolako batzarrean. Bertan, balio bera du haur txikiaren bozkak nola eskolako zuzendariarenak, pertsona guztien eskubide-berdintasuna eta benetako autogobernua muturrera eramanez, koherentziaz.

Klase arruntak egon badaude, baina ezaugarria askatasuna denez, nahi badute bakarrik doaz ikasleak klaseetara, edota nahi dutenetara. Gainerakoan, beren bidea egiten dute, beren bizitza diseinatzea eta egitea baitagokie haurrei ere, ttipi izanagatik. Helburua zoriontasuna da, askatasunez jokatzeko baina arduraz, pozik bizi eta lan egiteko gaitasuna lortzea. Hori da Summerhillen daukaten arrakastaren kontzepzioa.

Barnetegi moduan funtzionatzen du, 5 urtetik aurrerako haurrek eta 18 urtera bitarteko gaztetxoek osatzen duten komunitatea osatuz. Eta hori da, besteak beste, eredu oso «esportablea» eta imitagarria ez izatearen berezitasun handienetakoa. Eskola gidatzen duten printzipioak oso-oso iradokitzaileak dira, eta horregatik beharko genituzke aintzat hartu, askatasuna maite dugun hezitzaile guztiok. Nire ustez, hori da Summerhillen handitasuna, inspiratzailea dela, askatasun-lurrinez zipriztintzen baitu gure begirada: heziketarekikoa eta haurrenganakoa, baina denaren gainetik, bizitzarekikoa.

Neillek ez zuen bere pedagogia sistematizatu, eta urte askoan hori gabezia zela iruditu zaidan arren, indargune gisa ikusten dut orain zirkunstantzia hori, are sinetsi ere hori dela bere indargune nagusia. Ea azaltzen dudan. Bere printzipioak zeintzuk diren hertsiki arautu balu, horiei helduko liekete Neillen jarraitzaileek, eta berak egindakoa estu-estuan gurera ekarri nahiz, eskola neillianoak sortuko ziratekeen han eta hemen, bai, baina Summerhill-ek irudikatzen duen askatasun-printzipio horren oinarriaren kontra eginez, ezinbestean.

Izan ere, ez da hori, inondik ere, Summerhill-en izpiritua, baizik eta printzipioz eta definizioz arautu ezina den askatasunaren haizea lagun, nork bere izaera, garai, testuinguru eta baldintzetara ekarri eta bere eredu propioa egitea. Neillianoa edo summerhillianoa izan ordez, geurea izan dadin, geuretik sortua eta diseinatua. Ohartzen bazarete, badaude Montessori eskolak, edo Waldorf, edo dena delakoak, baina ez dago Neill eskola dei daitekeenik, nahiz eta beragan inspiratuak diren nik ezagutzen ditudan eskola libre interesgarri gehienak.

Ez zuen bere egiteko modua sistematizatu, baina horren ordez, Summerhill eskolaren bizitza kontatzen duen izen bereko liburua idatzi zuen, non gertaeren bitartez ematen zaigun aditzera zein zen eskolako orduko funtzionamendua.

Zorionez, UEUK euskaraz argitaratu berri du liburu eder hori, Santi Anguloren itzulpenarekin, eta Arantxa Urberen hitzaurre inspiratzailearekin, eta eman dezakeena baino ekarpen handiagoa dakar hori euskal hezkuntzara ez ezik euskal kulturara ekartzeak. Pentsamendu aurrerakoia jorratu nahi duen edozeinen mesanotxean egon beharreko liburua delako, pertsonen arteko harremanak eta elkarbizitza askatasunak nola gida eta arautu ditzakeen ideia bat har dezakegulako.

Bidelagunok, jada aitzakiarik ez: *Summerhill* etxeko apalategira!

Ane Ablanedo Larrion

